



**IZENBURUA:**

Euskara teknikariaren rolaz: ezagutzari ekarpena praktikatik

**EGILEA:**

Nekane Goikoetxea

**DATA:**

2014/05/15



## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	3
2. Euskara teknikariaren rolaz: diakroniaren lezioez.....	4
3. Praktika gogoetatsua .....	5
4. Eralan proiektuan egindakoa .....	7
5. Ondorioak .....	9



## 1. Sarrera

---

Ekarpen honen asmoa da ikerketa esparruan nahikoa ertzekoa izan den gai baten gainean gogoeta sustatzea. Hizkuntza normalizazio prozesuak ikertu direnean nekez hartu da ikerketa objektu bezala euskara teknikariak berak egiten duen praktika, ez eta horren ondorioz jokatzen duen rola. Administrazioko erabilera planak berritzeko xedea dugunean, ordea, nahita ezkoa gertatzen da gure iritziz planen eragile nagusi den euskara teknikariaren jardunari arreta eskaintzea. Eralan proiektuaren baitan garrantzitsu iritzi diogu arlo honi. Ekarpen honetan euskara teknikariaren rola izango dugu hizpide.

Soziolinguistika Klusterreko Eralan proiektua 2006tik 2014ra bitartean garatu da lan-talde eta aldi ezberdinen bitartez, beti ere lan-munduko organizazioetan bideratzen diren normalizazio lanetan sakontzeko asmoz. Eralan 3 (2012-2014) deiturikoak 3 proiektu bildu ditu bere baitan<sup>1</sup>; horietako bat administrazioko planen gainean garatu du erakunde mota horretako teknikarien lan-talde batek. Horri erreparatuko diogu oraingoa.

**Administrazioko planak berritzen: Kudeaketatik elkarrekintzara jauzi egitea** formulatu genuen lan-taldearen xede nagusi gisa. Berritzeko premia aspalditik da konpartitua euskara teknikariaren artean. Esango genuke berrikuntza nahia motor garrantzitsua izan dela betidanik. Eralan proiektuak dituen berezitasunak dira, batetik, ikerketa-ekintza parte-hartzaile gisa bideratu dela berrikuntza prozesua eta, bestetik, Eralan 2 aldian ateratako ondorio batzuen segida gisa ulertzen dugula berritzeko premia.

Eralan 2n<sup>2</sup> hizkuntza lidergoa kontzeptua esploratu genuen. Horren bitartez normalizazio prozesuetan engaiatutako eragile ezberdinek erakunde batean eragin zitzaketan aldaketetan sakondu genuen. Gure testuinguruan lidergo eraldatzailearen eredia egin zitzaigun baliagarriena eta, horrela, lider eraldatzaileen portaerazko ezaugarriak erabilia egiteko moduak berri-tzen saiatu ginen. Funtsean, guk kudeaketa eredia deitu dugun egoera batetik elkarrekintza eredu batera jauzi egitean dago gakoa. Kudeaketa eredia honako esaldien bitartez ezaugarrituko genuke: normalizazio prozesua oso dago euskara teknikariarengan ardaztua, honek aditu-betearazle rolak betetzen ditu nagusiki, erakundeko lider exekutiboaren inhibizioa oso handia da, planen hartzaileen rola pasiboa da eta erakundearen kulturaren ipar konpartitua eta konprometitua falta da.

Lidergoaren lanketaren bitartez, beraz, elkarrekintza eredu batean sakondu nahi izan dugu. Hiru helburutan formulatu genuen hori: 1) portaera eredugarriak sustatzea boterea dutenengan; 2) Euskararen aitzinaratzea bultzatzeko erantzukizuna artikulatuko duen lidergo-kateak sortzea; 3) Euskara teknikariaren rola birdefinitzea.

---

1 Sakontzeko: <http://www.soziolinguistika.org/eralan>

2 Sakontzeko: Goikoetxea, N. (2010). *Hizkuntza lidergoa aztergai: Eralan2 ikerketa proiektua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. [Sareko argitalpena]. Eskuragarri: <http://www.soziolinguistika.org/eralan/2>



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Azken helburua hartuko dugu hizpide hemen. Lan-taldean ondorioztatu dugu hirugarren helburutik hasten dela beste guztia. Berrikuntza nahiak erabilera plana bere osotasunean hartzen badu ere, Eralanen hautua izan da planarengan eragiten duten aldagai batzuegan eraginda iristea beste esparru batzuetara. Jakina, beharrezkoa da erabilera planen gaineko azterketa kritiko eta global bat egitea, esan gabe doa. Baina eragiteko garaian ikuspegi sistemikotik ezaugarritzen dugu erabilera plana eta sistema bat den neurrian, ertz batean aldatzen denak sistema osoari eragiten dio. Alegia, euskara teknikariak bere jardunean ezaugarri eraldatzaileak integratzen baditu, eragin dezake planak duen estatusen, agintarien inplikazioan, langileen erantzukizunean e.a. Ez du, esate baterako, euskararen estatus juridiko orokorrean eragingo, eta jakina, horrek eragiten du erabilera planean, baina teknikariak ikuspegi globala izanda ere, ekiten dio bere eragin esparruari eta hortik egiten du bere esku dagoena endogenoak diren aldagaien lanketan.

Lidergoaren inguruko prosa zientifikoak erakusten digu erakundeen aldaketak pertsonengan oinarritutako prozesuen bidez gauzatzen direla. Globalak diren proiektu sozialek legitimazio ariketa etengabea<sup>3</sup> behar dute eta legitimazio ariketa boterea duten pertsonak gorpuzten dute, beren hitzen bitartez baino gehiago beren praktikaren bitartez. Ez dezagun ahaztu, bestalde, lidergoa ez dela norbaitek bere kasa garatzen duen zerbait, soziala da eta besteen aitortzak eraikitzen du lidergoa. Krisi garaia agerian utzi du erakunde mota askoren legitimazio falta. Administrazioa (alderdiak, sindikatuak, langile publikoak) ez dago hortik kanpo. Administrazioa berrituko badugu, erantzun sofistikatuagoak behar ditugu, konplexuagoak, eta horrek eskatzen du elkarrekintzan sakontzeko konpetentziak garatzea.

## 2. Euskara teknikariaren rolaz: diakroniaren lezioez

---

Zer egiten du euskara teknikariak? Zertara dedikatu da? Zein funtzio bete ditu? Nolako profil profesionala behar luke? Lan gutxi egin dira arlo honetan; Soziolinguistika Klusterrak lehenago ere eskaini dio arreta. Erabilitako ikuspegia, ordea, ez da Eralanen baitan aukeratu duguna.

Eralanen baitan egindako eskuhartzeetan erakundez erakunde osatutako xede-taldeetan (administrazioko langile ezberdinekin) diskurtso ezberdinak erabili ditugu euskara normalizatzeak duen zentzuaz jarduteko. Diskurtso-ildo horietako bat izan da diakroniari begiratzea. Alegia, euskarak eta euskaldunok (administrazioan edo hortik kanpo) izan dugun ibilbidearen kontaketa egin da. Gehienetan hari argumentalak egindako ibilbide oparoa azpimarratzen du: Francoren erregimenaren hizkuntza politikari nola egin zitzaion aurre, hezkuntza eredu propioaren sorkuntza, esparru sozial ezberdinetan egindakoa e.a. Kide askok hizpide izan dute administrazioan euskarak egindako bilakaera. Nola joan diren hamarkadaz hamarkada eraikitzen hizkuntza normalizazioa operatibizatzeke moduak: Hizkuntza-Eskakizunen plangintzak, itzulpen politikak, ....

Hitzaldian Gotzon Egia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara arloko zerbitziburua entzungo dugu. Berak laualdi ezberdintzen ditu administrazioko euskara planetan: itzulpen aroa, hizkuntza eskakizunen aroa, erabilera sustatzeko aroa eta ku-deaketa arotik elkarrekintzara jauzi egitekoa. Bakoitzak ditu bere egitekoak, egiteko moduak eta abar. Diakroniaren lezioak erakus ditzake zein rol ezberdin jokatu behar izan dituen euskara teknikariak aro horietako bakoitzean, zein ezaugarri erantsi dizkion bere profil profesionalari, zein konpetentzia garatu behar izan dituen.

---

<sup>3</sup> Apodaka, E. (2009). *El poder en busca de autoridad*. Alicante: Editorial Club Universitario.



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Ohartarazi nahiko nuke ikaragarria izan dela ia hutsetik abiatuta egin den sorkuntza lana. Prozesu horrek baditu ezaugarri batzuk: beste ezagutza-eremu batzuekin konparatuta nekez egon da jakintza esparrurik modu sistematikoan ekarpenak egiten estatus-plangintzari, esparruz esparru egin beharreko eskuhartzeen diseinua (lan munduan nola eragin, familia bidezko transmisioan...) kasu gehienetan administrazio zein aholkularitza-enpresetako euskara teknikariek sortu dute; hizkuntza plangintzaren jakintza esparru artikulatu gabearen ondorioz arlo aplikatuak hartu du lidergoa askotan. Gainera, mimesi bidezko formazio asko bideratu da, kultura kooperatibo handia egon da euskara zerbitzuetan. Funtsean, euskara teknikari askok ikerketarekin loturiko ezaugarriak bereganatu dituzte beren profil profesionalean. Profesioa bera arian-arian doa sortzen horri esker.

Unibertsitate munduan esaten da ezagutza-arlo batzuk (medikuntza, zuzenbidea...) kotsagratuak direla eta beste batzuk, aldiz, ez. Euskara teknikariarena ez dago kotsagratua. Irakurketa politikoa egin liteke horretaz. Euskarak, eta ondorioz, euskararen eremuan lan egiten duen profesionalak, subalternitate egoera bizi du. Horrek eragina dauka bai gure lanaren eraginkortasunean, bai gutako bakoitzaren ongizatean. Anekdotak txiki batera ekarrita: zaila egiten zaigu adinez ala ezagutzaz gugandik urruti dagoen norbaiti azaltzea zein lan egiten dugun: *aaa, irakaslea zara...*, *aaa, itzultzailea zara...* Ez gara beste kontsiderazio batzuetan sartuko... Gure iritziz berebiziko garrantzia dauka esparru profesionalaren inguruan gogoeta egitea eta ekimenak artikulatzea. Are gehiago, publikotasunaren desjabetzeaz hitz egiten hasi garenean eta merkatu logikak gure bizitzetan duen garrantzia kontuan hartzean<sup>4</sup>.

Eralanen pentsatu dugu ongi legokeela beste esparru profesionaletan profilak eraikitzeke zein nola egiten duten aztertzea. Ispilu horretan begiratuta argiago ikus liteke atal honetan egindako baieztapen batzuen pisua.

## 3. Praktika gogoetatsua

---

Unibertsitateak dira profil profesionalak eraikitzeke lekuak, bai behintzat unibertsitateak gizarteak dituen premiei erreparatzen badie. Eralanen hezkuntzari begiratu diogu. Nola eraikitzen da irakasle profila? Zein ezaugarri ditu? Zerk egiten du irakasle bat profesional? Nola sakon liteke irakasle baten profesionalizazioan?

Hezkuntza arloan garrantzitsua izan zen Chevallardek (1985<sup>5</sup>) proposatutako hiruki didaktikoaren kontzeptua. Hirukiaren erpin bakoitzean zera dugu: batean irakaslea, bestean ikaslea eta hirugarrenean objektuak, ikas-irakasteko objektua bera. Hezkuntzaren eremuan lan handia egin da objektuan (nola ikasten diren hizkuntzak, elebitasunaren garapena) eta baita ikaslearengan ere (zer dakien sekuentzia didaktiko baten hasieran eta bukaeran, edota zer dakien hizkuntza batean eta zer transferentziak egiten dituen bigarren edo hirugarren hizkuntzara)... Baina azken urteetan irakaslearengan jarri da arreta. Irakasleak badu hobetzeko grina? Gelarekiko jakinmina du? Irakasleak berak nahi du bere lana ikertu?...

---

<sup>4</sup> Sakontzeko: Bauman, Z. (2005). *Liquid Life*. Cambridge: Polity Press.

<sup>5</sup> Chevallard, Y. (1985). *La transposition didactique: du savoir savant au savoir enseigné*. Grenoble: La Pensée Sauvage.



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Euskara teknikarien arlora transposizioa egingo bagenu esango genuke, erpin batean jar litekeela normalizazio ekintzen subjektua (hizkuntza, hiztuna, hizkuntza komunitatea); beste erpin batean jar liteke horretarako darabilzkgun tresnak, metodologiak e.a. eta hirukiaren azken elementua euskara teknikaria bera da. Ikerketak arreta jarri die lehen biei, nekez azkenari. Agerikoa gertatzen zaigu, aldiz, euskara teknikari baten lan profesionalik gabe ezin direla ulertu herri batzuek ezagutu duten ibilbide soziolinguistikoa. Badakigu, nahiz eta gutxi hitz egin den plano analitikoan horretaz, faktore honek duen garrantzia.

Zer lan egin daiteke irakaslearekin bere eraginkortasuna handitzeko? Zer lan egin daiteke euskara teknikariarekin? Hezkuntza zientzietan erdigunean da nola aztertu irakasleen portaera aktiboak, zein formazio-ekintza proposatu garapen (pertsonal eta) profesionalerako? Nola kontzeptualizatu irakasleen lana eta helburuak?

Irakasle askok orain arte erabili ditugun formazio moduen bestelako prestakuntza eskatzen dute, ez teorikoa soilik, edota ez beste norbaiten praktika on bat bere horretan kopiatzea. Eskakizun nagusia da irakaslea dagoen tokitik eta duen jakintzatik abiatzea bere prestakuntza. Hori da praktika gogoetatsuaren printzipiorik garrantzitsuena. Praktikaren garrantzia nabarmendu digute adituek<sup>6</sup>. Praktika gogoetatsuak ahalbidetu diezaguke bai profil profesionalaren definizioa, bai hobekuntza profesionala.

## 1. Zer da praktika gogoetatsua?

Praktika gogoetatsua ez da abiatzen jakintza teorikoetatik, baizik eta irakaslearen praktikaren analisisian oinarritzen da. Eta horrek prestakuntzarako aldaketa handia dakar. Zergatik? Pertsona dagoen tokitik abiatzen delako, egiten duenetik eta dakienetik, beren kezketatik, bere hutsuneetatik, bere esperientzia eta egiteko moduak argitara ekartzetik. Prestakuntza modu honek profesionalak dakiena aitortzen du eta hortik abiatuta hasten da lanean, hobekuntza hortik abiatzeko, dagoen tokitik. Horrela irakaslearen errealitatera gehiago lotzen da prestakuntza, eta ez eredu teorikoetatik.

Praktika gogoetatsua bizipenen trukaketa hutsa baino gehiago da. Praktikarekiko ikuspegi sakona eta kritikoa ekarriko duen hausnarketa prozesuak abiatzea da kontua. Horregatik da garrantzitsua profesional-ikertzaile soslaia. Hausnarketan oinarritutako metodologia bat da. Hausnarketa modu sistematikoan egin behar da, metodo batekin.

## 2. Nola erabiltzen da praktika gogoetatsua ezagutza arlo ezberdinetako profesionalizazioan sakontzeko?

Profesionalaren jarduna aztertzeke grina hau ez da berria. Ergonomiaren hasierarekin batera, 1980 hamarkadan AEBetan sortutako korranteak itzal handia izan du auzi honetan, hain zuzen, Donald Schöner eta bere *The Reflective Practitioner*<sup>7</sup> liburuak. Ikuspegi honen arabera ekintza da lanbide orotan ikaskuntza profesionala egiteko toki pribilegiatua.

---

6 Schön, D. (1998). *Reflexión sobre la acción y sobre la reflexión en la acción*. Barcelona: Paidós.

7 Schön, D. (1993). *The reflective practitioner*. Nueva York: Basic Books.



Profesionalaren esperientziak eta kompetentziak laguntzen dio bere praktika kudeatzen eta autonomoagoa bihurtzen. Profesionalak, beraz, harreman gogoetatsua du bere lanarekiko. Erlazio horrek esan nahi du profesionala, ekintzaren gainean gogoeta egiteko gaitasuna duen aldetik, konprometitzen dela etengabeko ikaskuntza prozesu batekin; eta hain zuzen, horixe dugu ekintza profesionalaren ezaugarri funtsezkoenetakoa.

Irakasle gogoetatsua mugimendua, profesionalizazioaren mugimenduarekin batera, prozesu sozio-politiko da, irakasle ofizioa nobletzea ekarri duena. Irakaslearen lana mamitsua bihurtu da, sakonagoa, bere lanak konplexutasuna du, garrantzia du, zaila da. Irakaslearen ekintza balorizatu egin da bereziki ikerlarien aldetik, eta horrek aditzera eman du bere adimen profesionala, lanbidea legitimatzea ekarri duena.

## 4. Eralan proiektuan egindakoa

---

Hirugarren atalean azaldutako eredu horri jarraiki, norabide horretan lanketa txiki bat egiteko ahalegina egin dugu Eralanen. Gorago esan dugun moduan elkarrekintza ereduaren arabera jokatzeko duen euskara teknikariaren rola birdefinitzea izan dugu helburu. Zein rol jokatu behar du erakunde baten barruan aldaketak sustatzen dituen harreman estilo jakin batean aritzen den teknikariak? Aritu-kudeatzaile izatetik zein ezaugarri erantsi behar dizkio bere jardun profesionalari? Praktika gogoetatsuan erabili ohi diren tresnen laguntzaz saiatu gara eskuhartzeek iraun duten bitartean euskara teknikariaren praktikari erreparatzen.

Bi tresna erabili ditugu: batetik, garapen taldean parte hartu duten euskara teknikari guztiek eguneroko bat idatzi dute. Bestetik, lidergo eraldatzailearen portaera estiloaren arabera jokatzeko ahalegindu diren bitartean gogoeta egin dugu kompetentzia terminotan. Dakigun bezala, *kompetentzia* terminoaren ezaugarria da ezagutza praktikan aplikatzen jakitea. Beraz, saiatu gara eskuhartzeak garatzen ari ginenean, elkarrekintzarekin erlazionatuta ikusten genituen ekintza tipikoak identifikatzen eta horiek kompetentzia orokorragoetan kokatzen.

Bi talde bereizi ditugu azken tresna honen kasuan: garapen taldeko kide gehienek gogoeta orokorrak egin dituzte baina koordinatzaile izan diren eta Eralan2ko lan-taldeko kide izan ziren Maite Alvarez eta Izaro Ugaldek lan sakonagoa egin dute. Azken hauek grabatu egin dituzte beren eskuhartze saioak Bermeoko udalean zein Gipuzkoa Foru Aldundian. Ondoren, grabatutakoarekin autokonfrontazioa<sup>8</sup> egin dute, alegia, egin asmo zutena eta praktikan egin dutena kritikoki aztertu dute haietariko bakoitzak eta gero taldean (Alvarez, Ugalde eta hirurok) egin dugu ariketa bera (autokonfrontazio gurutzatua).

Ariketa hau formaziorako baliagarria izan da, sarritan harritu egiten baikaitu egin uste genuena ez datorrela bat egin dabilgunarekin eta bizipen mailan oharkabean pasatu zaizkigun hamaika ezaugarri bideoan identifikatu egiten baititugu. Ikusi dugunez, konfrontazio ariketa horrek potentzial handia dauka formazio bide gisa, beti ere ongi gidatzen bada. Prozesu hori indibiduala izanik ere, oso emankorra gertatu zaigu taldean eginda ere.

---

<sup>8</sup> Autokonfrontazioa esaten diogu norberaren praktika modu kritikoan kanpo begirada batekin egiten dugunean. Kasu honetan bideoa erabili da tresna moduan norberaren praktika objektiboki aztertu eta aurrera begirako ondorioak ateratzeko. Ariketa taldean egiten denean autokonfrontazio gurutzatuaz hitz egiten dugu. Kasu honetan taldea osatzen dutenen analisiak konpartitzen dira. Sakontzeko: GUÉRIN, J., RIFF, J. eta TESTEVIUDE, S. (2004). Étude de l'activité «située» de collégiens en cours d'EPS: une opportunité pour examiner les conditions de validité des entretiens d'autoconfrontation. *Revue Française de Pédagogie*, 147, 15-26.



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

Halaber, autokonfrontazio gurutzatuaren bitartez saiatu gara elkarrekintza ereduaren bitartez jokatu nahi duen euskara teknikariak zeintzuk kompetentzia garatu beharko lituzkeen ondorioztatzen. Hiruko taldean egindako ariketa sakona, garapen taldekoek egindako ekarpenekin osatu da. Ikus fitxa bukaeran.

Egunerokoen kasuan, garrantzitsua da esatea ez genuela idazteko kontsignarik eman. Erabateko askatasuna izan du teknikari bakoitzak idazgaiak aukeratzeko eta idazketa-prozedurak zehazteko. Era honetako egunkariak, beraz, teknikarientzat eskuhartzeak garatu bitartean esanguratsuak izan diren gaiak, eta beren jardunaren gaineko gogoetagaiak zein idatzizko lanean ikus litezkeen nortasun alderdiak azaleratu dituzte.

Diskurtso analisia erabili dugu analisi-unitate batzuk erabilia ondorioak ateratzeko. Honela, talde mailako ondorio batzuk atera ditugu. Egunerokoaren azterketak erakusten digu nabarmena izan dela teknikarien garapena denboran zehar. Zehatzago esan genezake:

- Hasieratik eta amaierara bilakaera dago eguneroko guztietan, hasieran batez ere ekintzetan eta edukietan oinarrituak daude eta hausnarketa deskriptiboak daude, eta interbentzioak aurrera egin ahala prozeduran eta jarreretan oinarrituagoak eta hausnarketak konparatiboagoak eta kritikoagoak dira. Honek azaleratzen du zein garrantzitsua den prozesua Eralanen.
- Alderdi emozionala konstantea da, kezka hasieran; gauzak lotuta eraman nahi dira saioetara eta egin ezean, ziurgabetasunaren aurreko bertigoa nabarmena da testuetan. Aurrera egin ahala, jautzia egiteko ziurtasuna handiagoa da eta, ondoriozko poza nabari da, zerbait gainditu izanaren sentsazioa.
- Hasieran xede-taldean jartzen da fokua, amaieran, berriz, taldekide bakoitzari erreparatzen zaio gehiago.
- Bilaketa lanean dabilzan pertsonen egunerokoak dira. Galderak daude... Bilaketaren ideia oso presente dago prozesuetan. Sormen lana oso presente dago saioak prestatzeko garaian.
- Dedikazioa aipatzen da: asteburu, baja... Prozesu honek inplikazio pertsonal handiak ditu eta, ondorioz, irakaspenak sakonak izan litezke.
- Lankideekin jarduteko modua jaso da eguneroko askotan. Ikusten da gai garrantzitsua dela.
- Interbentzioak aurrera egin ahala egunerokoan jasotakoaren arabera, autonomia irabazten doaz teknikariak, auto-ebaluaketa gehiago dago, auto-gogoeta gehiago, barne-bakarrizketa handiagoa, emozioen auto-kontzientzia handiagoa, auto-motibazioak gora egiten du.
- Hasieran teknikariaren epaile ahotsa oso presente dago, aurrera egin ahala leku gehiago hartzen du galderak, zalantzak. Ahotsak askeagoak dira, akatsak onartzeko prestutasun handiagoa antzematen zaie eta baita auto-motibatze gaitasun handiagoa.
- Teknikariaren rola inguruko hausnarketa maila kritikoan sakontzen da eta hainbat galdera planteatzen dira:
  - ✓ Non hasten da eta noraino iristen da gure erantzukizuna udalak dituen jarduteko modu zaharkituak berritzean? Ikusi da administrazioan ohikoa den antolaketa-eredua gainditzeko duela Eralanek ezartzen dituen prozesuak eta administrazioko eragileek eskatzen dute lidergo-aldaketa administrazioan.





# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

- ✓ Lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko lotura eta mugak.
- ✓ Era Lan egoteak zer esfortzu eskatzen digu?. Zein helburu jartzen dizkiot neure buruari?...
- ✓ Lankideekiko harremana eta lan egiteko modua

Eralanek egindako bidea txikia da. Gehienez ere lan egiteko tresna batzuk frogatzeko balio izan digu. Egindako ahalegin honek balio dezake gure iritziz, praktikaren gaineko lanak duen potentzialitatea erakusteko. Zalantzarik gabe, ordea, egitasmo oso bat eskaini beharko litzaioke sendo egitekotan.

## 5. Ondorioak

---

Eralaneko hirugarren helburua da lehen: ezin da portaera eredugarririk sustatu agintariengan edota ezin da lider katerik artikulatu erabilera plana konpartituago bidera dadin, euskara teknikariak bere rola berrikusten ez badu.

Ekarpen honetan saiatu gara azaltzen Eralan egitasmoan zein zentzu eman diogun euskara teknikariaren profil profesionalaren birdefinizioari irakurketa globalagoa eginez horretako. Horrela, alde batetik, kritikoki begiratu dugu profesioak dituen garabiderako baldintzak eta, bestetik, aztergai izan ditugu gure ezagutza-arloa baino kontsagratuago dauden profesioetan nola lantzen den profil profesionala.

Horrenbestez, Praktika Gogoetatsua deritzon bidea erabili dugu erabilera planak berritzeko eskuhartzeak lideratzen dituen euskara teknikariaren praktika errealaren gaineko behaketa lana egiteko. Lan horren emaitzak izan dira teknikariak egindako prozesuaren gaineko ebidentzia batzuk eta egiteko modu berritzaileago baten alde egiten duen euskara teknikariarentzako erreferentziazkoak izan litezkeen konpetentzia batzuen definizioa.

Teknikarian ardaztutako aldagai honi ez zaio erreparatu orain arte. Baina oso garrantzitsua da. Etorkizuna teknikari-ikerlari profila indartzean ikusten dugu. Hasi beharko genuke bide honetatik lan egiten. Horrek eskatzen du ekintzen deshazkundera eta gogoetaren hazkundera; gure lehentasunak berrikustea. Ezin da berrikuntzarik egin hori gabe.

Prozesu hori ez da teknikari bakoitzaren afera soilik. Kolektibo moduan heldu beharko litzaioke erronka honi. Funtsezkoa izango da etorkizunean proiektu sendoak abiatzea ildo honetatik. Praktikaren gaineko gogoetak hobekuntza profesionala dakar eta baita profesionalaren estatusaren lanketa ere. Administrazioaren berrikuntzarako funtsezko osagaiak dira biak ala biak.



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

<b>Elkarrekintza eredurako kompetentzien lanketa</b>			
		<b>Eralan proiektuaren baitako eskuhartze-saioetan erabili ditugun ekintza tipikoak</b>	
1.-Komunikazio eraginkorra erabiltzen jakin	1.1.- Hitzezko eta ez hitzezko komunikazioa erabili eta besteen behaketa egiten jakin (gorputza, ahotsa, edukia...)	1.1.1.- Adi egon taldekideen gorputz mintzairari. 1.1.2.- Era guztietako baliabideak erabili: pausak egin, taldekideei begiratu, taldearen jarraipena egin begiekin, mezua eskuen mugimendu esanguratsuekin lagundu, mezua indartzeko ahotsa eta gorputza erabili.	
	1.2.- Azalpen argiak ematen jakin	1.2.1.- Egingo den lana kokatzeko abiapuntua eta helburuak azaldu, taldekideen galderei erantzun eta argitzeko oharrak egin, eta proposatutako dinamikak eta talde-lana azaldu eta argitu.	
	1.3.- Argudiatzen jakin	1.3.1.- Deferentziaz jokatu parte-hartzaileekin eta hartutako zenbait erabakiren berri eman jakinaren gainean egon daitezen.	
	1.4.- komunikatzen jakin		1.4.1.- Diskurtsoa egokitu hartzailearen ezaugarrietara eta egoera komunikatibo ezberdinetara: gaiarekiko ezagutza, ikasketa maila, sektore profesionala, nortasuna, aldartea...
			1.4.2.-Mezu ulergarriak eman.
1.4.3.-Bi norabideko komunikazioa sustatu, komunikazio zirkuitu osoa eman.			



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

		1.4.5.-Asertibitatez komunikatu gatazka edo aurreiritziren bat dagoenean.
	1.5.- Entzuketa aktiboa eta enpatikoa egiten jakin	1.5.1.- Beti entzuteko, emateko, jasotzeko eta laguntzeko prest nagoela adierazi nire jarrerarekin (abegikorra eta hurbila): arreta zentratu, eta ahozkoa ez den komunikazioari adi egon. 1.5.2.- Erabiliko dugun hitzen aukeraketa, tonua eta arnasketa taldearen ezaugarrietara moldatu.
	1.6.- Espazioaren kudeaketa egokia egiten jakin	1.6.1.- Modu dinamikoan erabili espazioa eta gaiaren arabera, espazioa desberdindu: azalpenak zutik, taldekako lanean talderik taldera, behar denean pertsona bakoitzarengana hurbildu...
2.-Prozesuak eraikitzen jakin	2.1.- Prozesuak berritzen jakin	2.1.1.- Trebatzeko ekintza desderdinetan parte hartu: ikastaroak, saioak, hitzaldiak, elkarlanak... 2.1.2.- Informazioa partekatu eta partaidetza bultzatu, partaideek prozesua bere egiteko eta gabeziak eta indarguneak sumatzeko eta identifikatzeko. 2.1.3.- Jarraibide eta erronka berriak adostu, erakundearen interesak eta garapen beharrak kontuan hartuta. 2.1.4.- Prozesuak hobetzeko beharra sentiarazi lankideen artean, egiten dugunaren gainean hausnartzeko tarteak sortuta ondorioak ateratzeko eta ekintza-plan berriak martxan jarri eta emaitzak ebaluatzeko.



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

	<p>2.1.5.- Ilusioa piztu beste esperientzia arrakastatsu batzuen berri lankideei emanda.</p>
	<p>2.1.6.- Lan-taldearen alderdi sendoak adierazi eta norbera lehena izan norbere hobetu beharra identifikatzen eta besteekin konpartitzen</p>
	<p>2.1.7.- Proiektuak planifikatu malgutasunez eta prozesua baloratu</p>
	<p>2.1.8.- Gure erakundetik kanpoko egituretan parte hartu.</p>
	<p>2.1.9.- Norbere lan-taldeko kideekin bilera programatuak egin, baina baita bat-batekoak ere momentuko kezkei irteera topatzeko.</p>
2.2.-Lankidetzan aritzen jakin	<p>2.2.1.-Besteen lanean inplikatu helburu komunak lortzeko.</p>
	<p>2.2.2.-Kideen etorkizun ikuspegia argitu helburu komunak lortzeko: zertarako dauden hemen, zer egiteko, zer espero den haiengandik</p>
	<p>2.2.3.- Boterea partekatu eta erabakietan parte-hartze handiagoa ahalbidetu.</p>
	<p>2.2.4.- Eginkizunak banatu, adostasuna bilatuta.</p>
	<p>2.2.5.- Beste arlo batzuetako teknikariek elkartu eta egitasmoak konpartitu.</p>
	<p>2.2.6.- Lankideekin elkarlanean zer egin daitekeen aztertu jarrera irekia izanik.</p>
	<p>2.2.7.- Besteen proiektuekiko elkarrekotasuna praktikatu, beste sailetan eta</p>



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

	arloetan ekarpenak egiteko ekimena hartu, eta horretarako sormena baliatu.
	2.2.8.- Adostasunak landu eta erabakiak hartzeko errespetua eta adostasuna landu
2.3.-Talde-lana bultzatzen jakin	2.3.1.- Guztion parte-hartzea bultzatu
	2.3.2.- Kideen ekarpenen garrantzia ikusarazi
	2.3.3.- Konpromisoaren garrantziaz jabebarazi
	2.3.4.- Lanak partekatu
	2.3.5.- Norabide anitzeko sarea bultzatu kide guztion artean, guztiok momenturo ekarpenak egiteko eta jasotzeko aukera izan dezagun.
	2.3.6.- Bilerak egin alde aurretik adostutako maiztasunez
	2.3.7.- Bileretarako koordinatzaile bat izendatu txandaka
	2.3.8.- Delegatzen jakin
	2.3.9.- Aliantzak egiten jakin: informazioa norberak bilatu eta kontrastatu, dena beste batek emateko zain egon gabe
	2.3.10.- Galdera pertinenteak egiten jakin bestearengan sormena pizteko; eta intelektualki estimulatu taldekideen iritziari garrantzia emanez.
	2.3.11- Galdetu: bestearen ekarpenak integratzeko malgutasuna izan. Nor-



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

		bere burua birkokatzen jakin.
		2.3.12- Gaia lantzeko estrategiak izan, aurrera egiteko estrategiak landu, hausnarketa bultzatu: entzun, galdetu, esandakoa jaso, birformulatu eta bueltatu taldeari, pentsatzeko tartea utzi, ideia nagusiak azpimarratu, edukiak laburbildu eta hurrengo gaira pasa aurretik, gaia itxi
	2.4.- Saioak ondo prestatzen jakin	2.4.1- Saio erakargarriak eta taldeari egokituak prestatu. Arreta mantentzeko estrategiak erabiltzen jakin eta era askotako baliabideak erabili: irudiak, dinamiketan erabiliko den materiala eta saioan erabilitako aurkezpena banatu, saioaren balorazioak irakurri..
		2.4.2.- Gaia kokatu. Zentzua ikustarazi, gaiari heldu ahal izateko, kontestualizatu
		2.4.3.- Saioa baloratzeko eskatu.
		2.4.4.- Saioari bukaera egokia eman: laburbildu eta hurrengorako data aurreikusitako edo zehaztu.
	2.5.- Besteen autonomia sustatzen jakin	2.5.1.- Irizpideak interpretatzeko taldeari autonomia eman.
		2.5.2.- Taldekide bakoitzak gura duen gaia lantzeko aukera eman.
		2.5.3.- Talde txikietan euren kasa lan egiten utzi.
	2.6.- Errespetuzko eztabaida sustatzen jakin	2.6.1.- Elkarri entzun eta ideia desberdinak entzuteko prest egon.



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

	2.7.- Blokeo, tentsio momentutik ateratzen laguntzen jakin	2.7.1.- Eztabaida blokeatuta dagoenean lagundu taldekideei, galderak eginez, beste ikuspuntu batzuk ekarriz, hitza emanez, ixiltasun-uneak errespetatuz
	2.8.- Lana ebaluatzen jakin	2.8.1. Gure lana behatu eta etengabe ebaluatu tresna erabilgarrien bidez.
	2.9.- Denboraren kudeaketa egokia egiten jakin	2.9.1.- Saio osoan denbora ondo kudeatu: hasteko eta amaierako ordua errespetatu, gai bakoitza lantzeko aurreikusitako denbora adierazi, ariketa bakoitzerako denbora kontrolatu, dinamikak amaitzeko falta den denbora iragarri eta esandako orduan amaitu.
3. Modu eraldatzailean harremanak izaten jakin	3.1.- Entzun, aintzat hartu pertsona eta taldea, entzuten ari garela seinaleak eman eta abegikortasuna eta enpatia erakutsi.	3.1.1.- Taldekide guztiei banan-banan berba eman.
		3.1.2.- Pertsona bakoitzaren iritziari garrantzia eman.
		3.1.3.- Pertsona zailak gureganatu.
		3.1.4.- Hitz egiten ari den pertsonari begiratu
	3.2.- Galdetu, pertsonen gogoia pizten jakin. Lankidetzatu, motibazioa bultzatu, ilusioa sortuz eta inspirazioa eman	3.2.1.- Taldekideei beren esperientziaren berri emateko eskatu.
		3.2.2.- Kide bakoitzaren ikuspegia azaltzeko giroa sortu galderen bitartez
	3.3.- Besteari aldiro feedbacka modu eraikitzailean ematen jakin, egindako lanaren errekonozimendua	3.3.1.- Eskuzabaltasunez jokatu, bestearen ikuspegia jaso eta integratu, eraikitzaile jokatu harremanetan eta ulerbera izan, zabal hartu besteak eta norbere burua, esaterako, eskertu taldearen prestasuna, aurreko esperientzia arrakastatsuren bat besteei azaltzeko eskatu.



# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

	3.4.- Besteen errespetua/konplizitatea irabazten jakin	3.4.1.- Aliatuak bilatu taldekideengan.
	3.5.- Aurreiritziak eta pertsonen etiketatzea gainditu.	3.5.1.- Harreman gatazkatsua dagoenean, pertsona horien konfiantza irabazteko keinuak egin, interesa eta gogoa pizteko euren gertuko elementu identifikatzaileak erabili. Adi egon eta aurreiritziak gainditzeko jokaera izan, hurbiltzeko eta komunikazioa hobetzeko estrategiak landu.
		3.5.2.- Harreman gatazkatsua dagoenean, besteen lekuan jarri.
4.-Profesionaltasunez jokatzeke izaerazko ezaugarriak garatzen jakin.	4.1. -Pertsona autonomia	4.1.1.-Erantzukizunak onartu, arduraz jokatu eta iniaziatiba hartu.
	4.2.- Pertsona malgua (prozesuak negoziatzen dituen)	4.2.1.- Ez itxaron besteek norberak bezala pentsatzea eta egoera horiek egoki kudeatu.
	4.3.- Norbere buruarengan konfiantza duen pertsona eta emozioak autoerregulatzen dakiena	4.3.1.- Zailtasunak egongo direla aztertu eta ikusi arren, konfort egoeratik ateratzeko prest egon.
		4.3.2.- Saioa ondo prestatuta izatearen zalantza eta beldurrari aurre egin.
		4.3.3.- Taldekideen galderak patxadaz entzun eta erantzuteko lasaitasuna hartu
		4.3.4.- Taldea prest dagoen arte itxaron
4.3.5.- Jarrera eta jokaera lasaia izan.		





# UDALTOP SOZIOLINGUISTIKA

JARDUNALDIA 2014

4.4. Ebaluazio eraikitzailea egiten duen pertsona	4.4.1.- Egindako lanaren gainean hausnartu eta hobekuntzak zehaztu.
4.5.- Automotibatzen dakien pertsona	4.5.1.- Ilusioduna: pertsona sortzailea, adi dagoena, jakin-mina duena.
4.6.- Pertsona koherentea, eta lidergo rolaerako ere bai	4.6.1.- Lider eraldatzailearen ezaugarrien arabera jokatu. Saio osoan ezaugarri horien arabera jokaera izan eztabaidan aurrera egiteko eta taldekideak estimulatzeko galderak egin pertsonen parte hartzea sustatu, eta esan eta egindakoaren artean jokaera koherentea izan.
4.7- Umoreari bide ematen dakiena	4.7.1.- Lan giroan, bileretan, eta laneko harremanetan oro har seriotasun gutxiagorekin jokatu eta lanean ondo pasatzen ahalegindu
4.8.- Pertsona konstantea	4.8.1.- Pertseberentziaz jokatzen duen pertsona izan
	4.8.2.- Adi egon, lanak hobeto antolatu proiektuei jarraipen estuagoa egiteko.
4.9.-Enpatia erakusteko gai den pertsona	4.9.1.- Gatazka momentuetan bestearen lekuan jarri
	4.9.2.- Lankidetzat sustatu, motibazioa bultzatu, ilusioa sortuz eta inspirazioa eman.
	4.9.3.- Bertzearen kezkei, zailtasunei eta zalantzei erreparatu, norbanakoari arreta eskainiz.
	4.9.4.- Konfiantza-giroa sortzen lagundu, bestearengana konfiantza izan
	4.9.5.- Eskuzabala izan, besteen arrakastak poztasunez ospatu.



**UDALTOP  
SOZIOLINGUISTIKA**  
JARDUNALDIA 2014

		4.9.6.- Auto-irudi ez perfektua, norbere hutsuneak, mugak, besteen aurrean naturaltasunez errekonozitu.
		4.9.7.- Eraikitzaile jokatu harremanetan, ulerbera izaten jakin, norbere buruarekin eta ingurukoekin gozoago jokatu.
		4.9.8.- Aurreiritziak saihestuta, lankideak indibidualki kontsideratu, pazientziaz jokatu